

EIBARREN AUTOBUSEN ZERBITZUAREN ALDAKETA MULTIKIROLAREN OSPAKIZUNEAN ZEHAR

Euskotrenek larunbateko, maiatzaren 11ko, goizeko 9:00etatik aurrera, DB02 Ermua-Donostia eta DB04 Mallabia-Ondarroa lineetako Lurraldebus zerbitzua, eta baita Udalbus udal zerbitzua ere aldatu egingo ditu Eibarren ospatuko den Multikirola dela eta.

Ospakizun horrek Eibarko erdigunea oinezkoentzako bihurtzea ekarriko du larunbateko, maiatzaren 11ko, 9:00etatik, igandeko, maiatzaren 12ko 22:00ak arte. Hori dela eta, DB02 Ermua-Donostia (AP-8) eta DB04 Mallabia-Ondarroa Lurraldebus zerbitzuko autobusak asteburuetan bezala ibiliko dira.

Eibarko udal zerbitzuaren kasuan, Udalbusak, larunbat goizeko (maiatzak 11), 9:20tik aurrera kendu egingo da. Hain zuzen ere, kendutako zerbitzuak, larunbat goizeko ohikoak, honako hauek izango dira:

- **Amaña-Azitain**: irteerak 9:20, 10:00, 11:20, 12:00 eta 12:40an.
- **Azitain-Amaña**: irteerak 9:40, 11:00, 11:40, 12:20 eta 13:00ean.

Informazio gehiago behar duten erabiltzaileek Euskotrenen 944 333 333 telefono zenbakia erabil dezakete. Konpainiaren www.euskotren.eus webgunean eta twitterreko [@euskotrenEJGV](https://twitter.com/euskotrenEJGV) gunean ere jaso dezakete informazioa.

Igorpen data: osteguna, 2019ko maiatzaren 9a